

Bergara, 2017ko uztaila

Ikasle ohi maiteok:

Ilusio handiz jakinarazten dizuegu **PSIKOMOTRIZITATE-LAGUNTZAN FORMAKUNTZAREN VII PROMOZIOA** hasiko dela (2018ko urtarrila-2019ko abendua)

Honekin batera triptiko bat bidaltzen dizuegu, formakuntza, epe eta matrikula aurkezteari, hautapen-sistemari eta abarri buruzko baldintzak jasotzen dituena. Irakurri ezazu arretaz, eta zalantzaren bat baduzu, gure idazkaritzara jo triptikoan adierazten den egun eta orduetan.

Hona hemen zehaztapen batzuk:

- Bidalitako curriculum guztien artean lehendabiziko aukeraketa bat izango da eta horiek **formakuntza pertsonaleko mintegi bat*** egingo dute (ezagutzen dituzuen Sentsibilizazio Ikastaroen ereduari jarraiki) eta baita **elkarrizketa pertsonal** bat ere, eta ondoren, behin betiko hautaketa egingo da.

Gure ustez, formakuntza pertsonaleko mintegi hori egitea beharrezkoa da, gure prestakuntzan ezinbesteko baliabidea delako Laguntzaren Praktika profesionalki erabili nahi duten pertsonak ebaluatzeko. Gainera kontuan izan behar dugu duela asko hezkuntzan prestakuntza jaso zenutenon kasua. Hautapen-prozesuan balorazio egokia egitea da gure asmoa, PPAren jarduerainarriekin koherentea izan dadin eta zorrotz jokatzeko.

- Gerora, Formakuntza honetan parte hartzerik izan ez eta berriro beste deialdi batzuetan eskaera egiten duten pertsonen interesa balorako da.
- Formakuntza honek UNEDen abala izango du, eta PPAen espezialista titulua jasoko da, ASEFOP-ek onartua.

Lehen hautaketarako beharrezkoa da bidaltzen dizuegun aurreinskripzio orria betetzea (argazki berriarekin) eta zuen curriculum vitae, bertan adierazten denaren ziurtagirien fotokopiekin. Curriculum vitae egiteko gida bat bidaltzen dizuegu. Guzti hau gure Eskolara bidali beharko **duzue urriaren 31a baino lehen**.

Agur bero bat eta laster arte.

Marixa Berriozabal Azueta
LUZARO; Psikomotrizitate Eskolako Idazkaria
mberriozabal@bergara.uned.es

*Mintegiaren matrikularen kostua: 185 €